

Xedea

Dokumentu honetan inbertsio produktu honi buruz ezagutu beharko zenukeen oinarrizko informazioa aurkituko duzu. Ez da material komertziala. Legeak ezartzen duen informazioa da, produktu honen izaera, arriskuak, kostuak eta irabazia zein galera potentzialak ulertzen laguntzeko eta beste produktu batzuekin partekatzen laguntzeko.

Produktua

Izena:	95 / 5 Repsol 02-2026 NOE 29132 Produktu Egituratua
Identifikatzailea:	NOE 29132
Fabrikatzailea:	Banco de Sabadell, S.A. IFZ A08000143
Harremanetarako datuak:	https://www.bancosabadell.com/cs/Satellite/SabAtl/Documentacion-PRIIPS/2000025609204/es/
Telefonoa:	963 085 000; Espainia kanpotik deitzen baduzu: +34 935 916 360
Agintari eskuduna:	Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala
ODD ekoizpen data:	2021eko otsailaren 17a

Erotera zoazen produktua ez da erraza. Zaila izan daiteke ulertzea.

Zer da produktu hau?

Mota

Finantza-kontratua

Helburuak

Produktuaren xedea azpiko baten edo batzuen jokoerari lotutako finantza-tresna batean inbertitzea da, kapital galera arriskua bere gain hartuz errentagarritasun bat lortzeko. Jarraian aipatzen diren zenbatekoak zuk inbertitutako Zenbateko Nominal bakoitzari dagozkio. Kalkulu-agenteak zehaztuko ditu zenbatekoak.

Azpikoak

Etekin Repsol SA-ri dagokio (Bloomberg-REP SM Equity).

Nola zehazten da etekina?

- 2022ko otsailaren 18a, Zenbateko Nominalaren % 95 jasoko duzu, 2021eko otsailaren 18 eta 2022ko otsailaren 18 bitartean igarotako aldiarengatik % 0,7ko kupoia, ACT/365 kalkulaturik, eta Interes Nominalaren % 95a jasoko duzu.
- Gainerako Interes Nominal biziaren gainean (Interes Nominalaren % 5): Behaketa-data bakoitzean, Azpikoaren ixte-prezioa Hasierako Maila bezalakoa edo handiagoa bada, dagokion Likidazio Datan gainerako Interes Nominal biziaren % 0,7ko kupoia jasoko duzu. Haien aurreko aldietan kupoirik jaso izango ez balitz, % 0,7ko beste kupoi bat jasoko duzu kupoia kobratu ez duzun aurreko aldi bakoitzarengatik. Bestela, ez duzu kupoirik jasoko.
- Iraungitakoan, hurrengoak gerta daitezke:
 - Azpikoaren Bukarako Maila Hasierako maila bezalakoa bada edo haren % 80tik gora badago, gainerako Zenbateko Nominal bizia berreskuratuko duzu.
 - Bestela, Azpikoaren Bukarako Maila Hasierako mailaren % 80tik behera badago, gainerako Zenbateko Nominal bizia ken Hasierako Mailatik Azpikoak galdutakoa jasoko duzu.

Oinarrizko datak eta datuak

- Kalkulu-agentea: Banco de Sabadell, S.A.
- Gutxieneko zenbateko nominala: 100.000 euro
- Jaulkipen-data: 2021eko otsailaren 18a
- Iraungitze-data: 2026ko otsailaren 18a
- Hasierako maila: Azpikoaren ixte-prezioa Hasierako Behaketa-datan
- Bukarako maila: Azpikoaren ixte-prezioen batezbesteko aritmetikoa Bukarako Behaketa-datan
- Behaketa-data:
 - Hasierako Behaketa-data: 2021eko otsailaren 16a
 - Kupoiaren Behaketa-data: 5 lanegun Likidazio-data bakoitzaren eta Bukarako Behaketa-daten aurretik
 - Bukarako Behaketa-data: 2026ko urtarrilaren 9a, 2026ko urtarrilaren 10a eta 2026ko urtarrilaren 11
- Likidazio-datak: otsailaren 18ak, Iraungitze-datara arte. Asteburua edo jaieguna izango balitz, Modified Following arauari jarraituko zaio.

Zein txikizkako inbertitzailei dago zuzenduta?

Funtsean hauei zuzendutako produktua: Edozein bezerori, produktua edo antzerakoak aurretik ezagutzen duenean edo esperientzia duenean, galeren % 5 arte jasateko gai bada, eta «arrisku ertaina-baxua» arrisku-profila badu. Halaber, xede bezeroen inbertsio helburuak produktuaren iraungitzearekin bat doan inbertsio horizonteari egongo lirarteke lotuta, eta eragiketaren helburua errentak lortzea eta kapitala haztea litzateke, egikaritzeko zerbitzu baten (txikizkako bezeroak ezik), egikaritzea eta komenigarritasun-proba baten, aholkularitza independente baten, aholkularitza ez independente baten eta zorroen kudeaketa pribatu baten mende egongo lirarteke.

Zein arrisku ditut eta zer lor dezaket horren truk?

Arriskuaren adierazlea

Arriskurik baxuena

1

2

3

4

5

6

7

Arriskurik altuena



Arriskuen adierazleak produktua 2026ko otsailaren 18ra arte edukiko duzula ulertzen du. Ezingo duzu kontratua lehenago baliogabetu, Entitatearekin kontratuaren baldintzei jarraituz adostu ezear.

Arriskuaren adierazle laburtua beste produktuekiko produktu honen arrisku maila alderatzen duen gida da. Produktuak merkatuen eboluzioaren ondorioz edo guk ordaindu ezin dugulako dirua galtzeko aukerak bistaratzen ditu. Produktua 3 arriskumotaren arabera sailkatu dugu 7ra arteko eskalan, non 3 «arrisku ertaina-baxua» den. Horretarako, bi elementu hartzen dira kontuan: 1) merkatuaren arriskua (azpikoaren hegazkortasun arriskua eta interes tasaren arriskua): etorkizuneko jokabidearen ondorioz gerta daitezkeen galerak arrisku baxuko gisa sailkatzea; eta 2) kredituaren arriskua eta merkatuaren koiantura txarak Bankuak ordaintzeko ahalmenean eragina izateko probabilitatea oso txikia izatea. 2014/59/UE europar zuzentaraua aplikatuz, kreditu entitateen eta inbertsio zerbitzuko enpresen berregituratzearena eta ebazpenarena, ebazten duten agintariak birkapitalizazioari lotutako finantza-tresnak amortizatzea edota bihurtzea, edo jaulkitzailearen aktiboak edota unitateak transmititzea erabakitzeak arriskua. Kapitalaren % 95a edo gehiago berreskuratzeko eskubidea du. Zenbateko horren gainetik dagoen kantitate oro, eta etekin osagarri oro, merkatuaren etorkizuneko eboluzioaren mende daude, eta ez dira ziurrak. Ezingo bagenizu zor dizuguna ordaindu, inbertsio osoa gal zenezake.

Errentagarritasunaren agertokiak

Ezin da zehazki aurreikusi etorkizunean merkatuak zein eboluzio izango duen. Sartzen diren agertokiak gerta daitezkeen emaitza batzuen adierazleak baino ez dira, azken etekinetan oinarrituta. Benetako etekinak txikiagoak izan daitezke.

Inbertsioa (10.000 euro)

Agertokiak		Urte 1	3 urte	5 urte Mantentze-aldi gomendatua
Tentsioko agertokia	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.518 euro	9.484 euro	9.472 euro
	Urteko batez besteko etekina	% -4,82	% -1,75	% -1,08
Kontrako agertokia	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.827 euro	9.671 euro	9.656 euro
	Urteko batez besteko etekina	% -1,73	% -1,11	% -0,70
Agertoki moderatua	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.909 euro	9.840 euro	9.966 euro
	Urteko batez besteko etekina	% -0,91	% -0,54	% -0,07
Aldeko agertokia	Kostuak kendu ondoren jaso ahal izango dena	9.960 euro	9.907 euro	9.966 euro
	Urteko batez besteko etekina	% -0,40	% -0,31	% -0,07

Aurreko agertokiek aurretik zehaztutako behaketa-datetan lortutako fluxu posibleen arriskuko tasa libreko berrinbertsioa hartzen dute barne (kupoiak edota autobaliogabetzea) gomendatutako inbertsio-aldira arte.

Koadro honetan hurrengo 5 urteetan zehar jaso ahal izango zenukeen dirua adierazten da, agertoki desberdinen arabera eta 10.000 euro inbertitzen dituzula ulertuta. Aurkeztutako agertokiek zure inbertsioek izan dezaketen errentagarritasuna irudikatzen dute. Beste produktu batzuen agertokiekin alderatu ditzakezu. Aurkeztutako agertokiak inbertsio honen aldatetari buruzko iraganeko datuetan oinarrituta etorkizuneko errentagarritasunaren kalkuluak dira, eta ez dira adierazle zehatzak. Jasoko duzuna merkatuaren eboluzioaren arabera eta inbertsioa edo produktua mantentzen duzun denboraren arabera aldatuko da. Tentsioko agertokiak merkatuen muturreko baldintzetan jasoko zenuena erakusten du eta ez du kontuan hartzen guk ordaindu ezin izatea. Produktu hau ezin da gauzatu. Hau da, zaila da iraungi aurretik saltzen baduzu jasoko zenukeen kantitatea zein den zehaztea. Lehenago ezingo duzu saldu edo garesti ordaindu beharko duzu edo galera handia izango duzu eginez gero.

Aurkeztutako zifrek produktuaren kostu guztiak hartzen dituzte, baita zure aholkulariaren edo banatzailearen kostuak ere. Zifrek ez dute kontuan hartzen zure zerga egoera pertsonala, zeinak eragina izan dezakeen jasoko duzun zenbatekoan.

Zer gertatuko litzateke Banco de Sabadell, S.A.-k ordaindu ezingo balu?

Finantza-kontratu hau ez da bankuko gordailu bat eta, ondorioz, ez du konpentsazio edo berme baten erregimenaren estaldurarik. Hortaz, iraungitakoan Bankuak ezingo balu ordaindu, kaudimenik ez duelako, bezeroa Bankuaren gainerako hartzekodunekin elkartuko litzateke eta pribilegioak edo bermeak dituzten hartzekodunen mende gertatuko litzateke, mendeko hartzekodunekiko eta akziodunekiko bakarrik izango lukete lehentasuna.

Zein dira kostuak?

Etekinaren murrizketak (RIY) zuk ordaintzen dituzun kostu osoek lor dezakezun inbertsioaren etekinean duen eragina adierazten du. Kostu osoek kostu bakunak, ohikoak eta osagarriak hartzen dituzte kontuan.

Hemen adierazitako zenbatekoak hiru mantentze aldiri dagozkien produktuaren kostu metatuak dira. Lehenago irteteagatik ezar daitezkeen isunak barne hartzen dituzte. Zifrek zuk 10.000 euro inbertituko dituzula ulertzen dute. Zifrak estimazioak dira, beraz, etorkizunean alda daitezke.

Kostuak denboran zehar

Inbertsioa (10.000 euro)

Agertokiak	Irteera urtebeteren ondoren	Irteera 3 urteren ondoren	Irteerarekin (gomendatutako mantentze-aldiaren bukaeran)
Kostu osoak	176,00 euro	176,35 euro	75,65 euro
Urteko etekineko murrizketan duen eragina	% 1,76	% 0,59	% 0,15

Kostuen osaera

Hurrengo koadroak hauxe adierazten du:

- Kostu mota desberdinek inbertsioaren etekinean izan dezaketen urte bakoitzeko inpaktua gomendatutako mantentze-aldiaren bukaeran;
- Kostuen kategoria desberdinen esanahia.

Koadro honetan urteko etekinean duen eragina ikus daiteke.

Kostu bakunak	Sarrera-kostuak	% 0,15	Inbertsioa egiten duzunean ordaintzen dituzun kostuen inpaktua. Kostuen inpaktua prezioan sartuta dago. Kantitate honetan zure produktuaren banaketa kostuak sartzen dira.
	Irteera kostuak	N.A.	Iraungitze datan bere inbertsioaren irteera kostuen inpaktua.
Ohiko kostuak	Zorroaren eragiketen kostuak	N.A.	Guretzat produktuaren azpiko inbertsioen erosketak eta salmentak izango duten kostuen inpaktua.
	Beste ohiko kostu batzuk	N.A.	Zure inbertsioen kudeaketaren urteko kostuek eta II. atalean bildutako kostuen inpaktua.
Kostu osagarriak	Etekin-komisioak	N.A.	Ez dagokio (N.A.)
	Partaidetzak kontuan	N.A.	Ez dagokio (N.A.)

Zenbat denboraz eduki behar dut inbertsioa, eta dirua lehenago atera dezaket?

Gomendatutako mantentze-aldia: 5 urte

Gomendatutako mantentze-aldia produktuaren iraungitze datari dagokio. Arren, kontuan izan produktua iraungitze-dataren aurretik baliogabetzea ez dagoela aurreikusita, likideziaz ez duelako. Edozein kasutan ere, Entitatea kontratuan aurreikusitako baldintzen lehenagoko baliogabetzean sartuko balitz, baliogabetze hori ezingo litzateke kontratatutako nominalaren % 1 baino gehiago izango.

Nola erreklamatu dezaket?

Produktu honen edo jasotako zerbitzuaren inguruan kexarik edo erreklamaziorik aurkeztu nahi baduzu, Bezeroen Arreta Zerbitzuarekin jar zaitezke harremanetan, <https://www.bancsabadell.com> guneko harremanetarako formularioaren bitartez edota postaz, hurrengo helbidean: Bezeroen Arreta Zerbitzua - Banco Sabadell Gunea, Can Sant Joan industrialdea. Calle Sena, 12, 08174 Sant Cugat del Vallès edota posta elektronikoz bidez, hurrengo helbidean: SAC@bancsabadell.com, baliabide honen erabilera 59/2003 Legearen arabera denean, abenduaren 19koa, sinadura elektronikokoa. BAZari erreklamatu ondoren, badago BMNBari erreklamatzeko aukera.

Beste datu interesgarri batzuk

ODD honetan egin daitekeen ekintza oro Banco Sabadell web orrian edo BS Online webgunean egongo da eskuragarri, bezeroaren posizioko kontuan.